

UDABERRIA

Udaberria txoratzekoa da. Begira zelai zabalak nola dauden lorez beteta, zenbat margo edo kolore nola tolestuta, ez da gizonik orrela landuko ditunik. Gero mendi aldera joaten bazara, orain irtetzen dira iratze edo garuak, ni egon naiz begira nola irtetzen diran, jaiotza denak bezala lurra ireki eta salto egingo balute bezala, indarrean. Ori bezala zuaitzak ere nola botatzen dituzten beren kimuak zoragarria da. Ori bai dela "miraria". Guk lur mutur bat lantzen genuen eta egon izan gara txundituta begira nola jaiotzen diran, zeu begira zaudela, lekak edo bainak, babarrunak eta abar. Nire senarrak beti esan oi zuen beretzat natura zela jainkoa, ongi begiratu ezker txunditzekoa dela, orrelako gauza ederrak ikusirik ezin leikela triste edo animorik gabe bizi. Oraintxe dagon eguzkiarekin eta ollar bat ere ari da kantari, geuk ere kanta dezaiogun udaberriari:

Udaberria etorri zaigu
zoragarria benetan,
eguzki gozo askoa
ikusten degu goizetan,
kalera irtendakoan
irriparra ezpainetan.
Orrelako giroarekin
ezin bizi penetan (ber.)
Orrelako giroarekin
ezin egon penetan.

MARI CRUZ GARMENDIA UGARTE